



Goian, Panteres Grogues klubeko arraun taldeko kide batzuk. Ezkerrean, Beñat Olea, eta, eskuinean, zutik, klubaren kamisetarekin, Jon Domingez. Alboan, arraunlari batzuk itsasoratzeko prest. PANTERES GROGUES

infraganti

PANTERES GROGUES

Aniztasun sexuala gizartearen txoko guztietara iristen dela onartuagatik, kirola bezalako esparruetan ez da oraindik ere naturaltasun osoz bizi. Badaude kirol maskulinizatuak eta badaude kirol feminizatuak. Estereotipoek, baina, ez dute beti errealitatearekin bat egiten. Panteres Grogues kirol eta kultur kluba hori aldarrikatzeko sortu zen Bartzelonan.

Panteres Grogues kluba 1994ean sortu zen Bartzelonan, Rudy izeneko mutil baten ekimenez. Bera lagun gay eta lesbianekin hondartzako boleibolea aritzen zen. Mutil homosexualen osatutako Alemaniako boleibol talde batek oparitutako baloi hori batekin jokatzen zuten, eta horrela sortu zitzaizen ideia: LGTBI kolektiboko eta haiek babesten dituztenentzako kirol klub bat sortzea. Panteres Grogues jarri zioten izena, alegia, “pantera horiak”. Egun LGTBI+ bezala federatutako Europako lehendabiziko klubetariko bat

da. 2018ko hasierako azken zenbaketaren arabera, 1.139 kidek osatzen dute egun kluba, 824 gizonen eta 315 emakumeen, dozenaka ekintza eta kirolen artean banatzen direnak.

Klubean, genero eta sexualitate aniztasunaz gain, jatorri askotako pertsonak ere badaude, tartean euskaldunak. Jon Domingez Irungoa da eta 32 urte ditu. Bartzelonara orain dela bi urte heldu zen, «ipurtarin» bat delako eta probatzearen. Bada, egun, klubeko koordinatzaileetako bat da. «Panteres Groguesen helburua errespetu eta askatasun espazio bat sortzea da, non guztiek gustuko duten kirola edo ekintza kulturala praktika dezaketen askatasun osoz, inolako presiorik edo taburik gabe», azaldu du. Bere kasuan, arraunean aritzen da. «Betidanik izan dut arraunagatik jakin mina, txikitatit gustatu izan zaizkit estropadak».

Klubean nahi duenak eman dezake izena. Urteko kuota 40 eurokoa da, gastuak estaltzeko. Izan ere, irabazi asmorik ez du-

te. Koordinatzaileak zein zuzendaritzako kideak boluntarioak dira. Klubak nahi duena da gizarteari erakustea inor baztertzeko ez duen kirol eredu bat posible dela. Kirola homosexualitatea arrunt bilakatzeko tresna gisa erabiltzen du, eta, horretarako, inolako bazterketarik gabeko kirol aktibitateak sustatzen ditu, oinarrian errespetua eta tolerantzia izanik.

«Kirola ikusezintasun, tabu eta beldurrez beteriko arloa da. Ia ez da kirolari profesional homosexualik ezagutzen. Askok babesleak galtzeko beldurra dute. Horregatik, armairutik ateratzera ausartzen direnak kirola utzita dutenean edo uzteko zorian daudenean egiten dute, eta orduan jada ez dute halako ikusgarritasunik. Gainera, hipotetikoki kirolari bat homosexuala dela iradokitzen denean, mespretxuz egiten da, eta horrek ez dio kirolari soilik eragiten. Izan ere, haur eta gazteek kirolean homosexualik egon ezin den ideia jasotzen dute, eta, egotekotan, txantxetarako



Arraun taldea sortu eta gutxira atera zuten goiko argazkia, entrenamendu batean. PANTERES GROGUES

arrazoi dela, eta, hortaz, ezkutu beharreko zerbait», nabarmendu du irundarrak.

Horregatik uste dute garrantzitsua dela erakustea kirolak eta sexualitateak ez inolako zeri-rikusirik elkarren artean, sexualitateak ez diola eragiten errendimenduari. «Gizarteari erakutsi behar zaio futbolearen aritzen diren gizon gayak eta igeriketa sinkronizatua egiten duten heteroak badaudela; emakume heteroek errugbian jokatzen dutela, eta lesbianek ere saltsa dantzatzeko dutela».

DIZIPLINA UGARI

Klubaren baitan 24 kirol eta kultura diziplina desberdin daude: saskibaloia, txirrindularitza, dantza, abesbatza, crossfita, eskia, futbola, igeriketa, igeriketa sinkronizatua, padela, pilatesa, ping-ponga, arrauna, errugbia, korrika, salsa, xenda-zaletasuna, squash, tai xia eta meditazioa, antzerkia, tenisa, pistako boleibola, hondartzako boleibola eta yoga.

Domingez koordinatzailea izateaz gain, arraun taldeko kidea ere bada. «Taldekako kirol bat egiteko gogoaren nuen eta aire librean egin ahal izatearen ideiak erakarri ninduen», azaldu du. «Oso giro ona dugu. Bakoitzak bere motibazioak eta erronkak ditu, baina desberdintasun horiek ez gaituzte banatzen», nabarmendu du.

Era berean, Domingezek azpimarratu du gainontzeko arraun taldeekin ez dutela inolako arazo homofoborik izan. «Estropadetan parte hartzen dugunean gainontzeko taldeek errespetu eta maitasun handiz tratatzen gaituzte». Tamalez, ez da klubeko talde guztiekin berdina gertatzen: gizonen artean futbol taldeak irain larriak jaso izan ditu. Pentsa, talde bat Ligatik ere kanporatu zuten Panteres Grogues klubeko taldearekin izandako jarreragatik.

Arraun taldea mistoa da, gizonen eta emakumeen osatutakoa, homosexualak zein heterosexuak. Arraun taldearen

baitan traineru desberdinak dituzte, eta horietako batean aritzen da Beñat Olea 30 urteko le-
gazpiarra. Bere kasuan, euren taldetxoan denak dira gizon homosexualak, baita entrena-
tzailea bera ere.

Olea ilustratzailea da, eta, Bilbon urte batzuk eman ostean, Bartzelonara jo zuen duela bi urte lan aukera gehiago topatu-ko zituelakoan. Eta hala izan da. Bertan lan egonkor bat topatu du, baina baita lagun kuadrilla aparta ere: arrauneko lagunak. «Denbora luzea neraman kirol berri bat probatzeko gogoz. Bartzelonara iritsi berri nintze-
la, lagun batek Panteres Groguesi buruz hitz egin zidan eta jende berria ezagutzeko aukera eder bat izan zitekeela iruditu zitzaidan. Klubean arraunketa taldea sortzeaz zegoen momen-
tu horretan eta denok zerotik hastea are interesgarriago iruditu zitzaidan jada sortuta ze-
goen talde batean sartzea bai-
no», kontatu du.

Taldeko giroa «ezin hobea» dela ziurtatu du Oleak. Taldea sortu zenean 11 lagun bildu zi-
ren, eta gaur egun dagoeneko 50 baino gehiago dira arraunla-
riak. «Oso izaera eta kultura ez-
berdinetako jendea kirol baten inguruan elkarlanean ikusteak po-
za ematen dit!», azpimarratu du le-
gazpiarra.

Klubaren filosofiari jarraituz, arraunlariak beraiek ardura-
tzen dira antolakuntzaz. «Ba-

koitza hobekien egiten dakien hori eskaintzen saiatzen da: di-
ruzaintzan, komunikazioan, sa-
re sozialen kudeaketan... Ni neu-
janzkeren diseinuaz arduratu
nintzen», gaineratu du.

Kirolari bakoitzak interes desberdinak ditu arraunean ja-
rrita. Hala, batzuk jendea eza-
gutu eta egunerokotasunetik irteteko joaten badira ere, ai-
sialdi huts gisa, beste batzuek
lehiaketetan parte hartzeko in-
tentzioa dute. «Gure lehendabi-
ziko pausoak beste arraun talde
bati atxikita eman genituen. Tal-
dea handitzen hasi zenean, bai-
na, gure kasa aritzea erabaki
genuen eta ordutik bi arraun-
keta motetan espezializatu ga-
ra: euskal traineruekin pareka
daitekeen *llagut* katalana eta
aulki mugikorra», azaldu du.

Llagut katalanean le-
mazaina eta zortzi arraunlari sartzen di-
ra, launa alde bakoitzean. Jarle-
kua finkoa da, eta, beraz, inda-
rra enborrarekin egiten da,
abdominalak sendotuz. «Arraunketa bortitza-
goa dela esango nuke. Hori bai, talde ba-
ten parte sentitzen zara, kideez
inguratuta aritzen baitzara»,
nabarmendu du le-
gazpiarra. Aulki mugikorrean, ber-
riz, due-
la gutxi hasi ziren arraunean eta jada hainbat lehiaketa di-
tuzte begiz jota: «Indartsu hasi
gara entrenamenduetan. Aste-
arteetan, ostiraletan, larunbate-
tan eta igandeetan aritzen gara,
bai itsasoan eta baita gimnasio-
an ere. Modalitate honetako
lehiaketa gehienak Estatu fran-
tsesean antolatzen dira eta
martxoak 25an Toulonera
goaz gure lehen proba jokatzeko.
Horretarako ondo prestatu
beharra daukagu, dieta, entre-
namendu eta atsedena behar
bezala eginez. Oraindik asko
daukagu ikasteko, baina gu geu
ikasteko irrikatan gaude!». •

Nagore Belastegi Martin

«Futbolearen aritzen diren gizon gayak eta igeriketa sinkronizatua egiten duten heteroak badaudela» erakutsi nahi diote gizarteari, estereotipoekin behin betiko hausteko

«Oso izaera eta kultura ezberdinetako jendea kirol baten inguruan elkarlanean ikusteak poza ematen dit!», nabarmendu du Bartzelonako klubean arraunean aritzen den Beñat Oleak